



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko urriaren 24a

122. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Kontu Irekiei buruzko Foru Lege proposamena. Ogasuneko eta Finantza Politikako Batzordeak onetsitako irizpena (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du arbuiatu egiten duela Ekonomiako eta Merkataritzako Akordio Globala (Comprehensive Economic and Trade Agreement). Ogasuneko eta Finantza Politikako Batzordeak onetsia (6. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, eragile sozialekiko eta GKEekiko hitzarmenen kudeaketa-eredua ezartzeko hartu diren neurri zehatzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Gazteen Bermearen 2015eko Sistemari inskribatuta dauden gazte langabeak kontratatzeke toki entitateentzako laguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Iruñeko katedraleko klaustroa zaharberritzeko sinatu den hitzarmenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, jakitekoa ea zertan den Eliza Katolikoak eginiko immatrikulazioak direla-eta Parlamentuko Osoko Bilkurak onetsitako erabakiaren betetzea. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, “410001 41800 6020 325100 - Ikastetxe berrien eraikuntza”, “410001 41800 7609 325103 - Ikastetxe berrien eraikuntza” eta “4110001 41210 4812 322304 - Prestakuntza Planerako Laguntzak” kontusailei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek egindako esku-hartzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Gizarte Zerbitzuen Erabiltzaileen Informazio Sistemari biltzen diren Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek egindako esku-hartzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

- Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko lehendakaria hautatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, irakaslez bestelako langileak direla-eta Hezkuntza Departamentuak ikastetxeei eskatutako informazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Fiteroko monasterioko klaustroaren zaharberritzea finantzatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Karlismoaren Museoaren edukiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Ribaforadako kontsultategi mediko berriaren eraikuntza geldiarazteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Kontu Irekiei buruzko Foru Lege proposamena.

OGASUNEKO ETA FINANTZA POLITIKAKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 138.3 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ogasuneko eta Finantza Politikako Batzordeak honako Kontu Irekiei buruzko Foru Lege proposamenari buruz onetsitako irizpena. Proposamen hori 2016ko apirilaren 29ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2016ko urriaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

IRIZPENA

Ogasuneko eta Finantza Politikako Batzordeak 2016ko urriaren 14an eta 20an egindako bileretan onetsia.

Kontu Irekiei buruzko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

I

Kontu irekiei buruzko foru lege honek Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legearen osagarri izan nahi du. Bi arau horien oinarrian dago administrazio publikoen dokumentuetarako, artxiboetarako eta erregistroetarako irispide-eskubidea, zeina Espainiako Konstituzioaren 105. artikuluan jasota baitago. Halatan, jada 11/2012 Foru Legearen 34. eta 35. artikuluetan Foru Komunitateko Administrazioari argi eta garbi agintzen zaio bultza eta susta dezan herritarrek afera publikoetan parte hartzea.

Azken urteotan, tamalez, ustelkeria politikoko eta baliabide publikoen erabilera okerreko hainbat gertakari bizi izan ditugu, eta hortaz ezinbestekoa da demokrazia eraberritzeko neurri berriak ezartzea. Horien artean, gardentasunak aldez aurreko eta funtsezko zeregina betetzen du, demokraziaren kontzeptuaren berezko osagaia den aldetik,

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren antolamenduaren taxutze berri bat eginez, 11/2012 Foru Legea onestearekin hasitako bidetik.

Kontu Irekien Foru Lege hau, hain zuzen ere, 11/2012 Foru Legearen osagarri nahitaezkoa izatera dator. Haren terminologia bera erabilita, 11/2012 Foru Legearen 2. artikuluan ezarritako aplikazio-eremuan sartzan diren subjektuen banku-kontuak "Informazio Publiko" gisa sailka daitezke, artikulua horretan adierazitako entitateen eta erakundeen esku dauden edukiak edo dokumentuak direlako eta xede publiko bati erantzuten diotelako, nola baita horien funtzionamendu ekonomikoa eta aurrekontu-betetzea.

11/2012 Foru Legeko III. tituluan informazio publikoari buruz ematen den definizioari eta hartarako irispideari ezartzen zaizkion mugei jarraikiz, gure ustez ezinbestekoa da herritarrentzako irisgarri dagoen informazio horretan sartzea honako banku-kontuak: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarenak, haren menpekoak edo haren lotutakoak diren erakunde publikoenak, sozietate publikoenak, fundazio publikoenak eta 11/2012 Foru Legearen esparru subjektiboan aipatzen diren zuzenbide publikoko gainerako entitateenak. Ildo horretan berean, aintzat hartu behar dugu informazio publiko oro izan beharko litzatekeela, printzipioz, irisgarria, halako moduan non ezin izanen litzatekeen ukatu beste eskubide edo interes batzuk babesteko beste ezertarako, informazio publikorako irispide-eskubidea baliatzeari dagokionez 11/2012 Foru Legearen 23. artikuluan ezarritako mugen arabera. Kasu horiek, ordea, a priori ezin zaizkio aplikatu foru lege honek kontu irekietarako ezarri nahi duen kontzeptuari.

Estatu-mailan, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen hitzaurrean jasotzen da gardentasunak zer-nolako garrantzia duen administrazioaren eta publikoa denaren kudeaketan; izan ere, Gorte Nagusiek

onetsitako lege horrek xede du oinarri material batzuk ezartzea, Espainiako Konstituzioaren 9.2 eta 23.2 artikuluetan parte-hartze politikoari buruz eta 20.1 artikuluan informaziorako oinarrizko eskubideari buruz jasotzen diren xedapenak betetze aldera. Halatan, Herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak berak jada ezartzen zituen gardentasun hori lortzeko lehen urratsak, Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legeaz edo Sektore publikoaren informazioa berrerabiltzeari buruzko azaroaren 16ko 37/2007 Legeaz gain.

Informaziorako eskubide generiko hori, zeina Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 19. artikuluan jasotzen baita, orobat zertzen da Europako Kontseiluak agintari publikoen esku dagoen informaziorako irispidea dela-eta 1981ean emandako Gomendioan eta Dokumentu Publikoak Eskuratzeari buruz Europako Kontseiluak 2009an onetsitako Hitzarmenean. Gardentasun eta irispide eskubide eta kultura horrek, etika, logika eta koherentziagatik, administrazio publikoetako diruzaintzaren egoerari buruzko informazioa jasotzen hasi behar du, eta, ondorioz, hura gordailutzen eta erregistratzen deneko kontuei buruzkoa ere bai, aprobetxatuta, halaber, informazio- eta komunikazio-teknologiaren arloko aurrerabideak jada ahalbidetzen duela modu ulergarri eta errazean baliatu ahal izatea informazio publikorako irispide-eskubide hori.

Diru publikoa –zeina nafarrena baita– gordailutzen den banku-kontuetarako irispidea izatea da Administrazioaren gardentasunaren bermerik handiena, bai eta tresnarik eragingarriena ere ustelkeriaren aurka borrokatzeko eta botere publikoek beren kudeaketari buruz eginiko kontu-ematea eraginkorra izan dadin sustatzeko.

1. artikulua. Aplikazio-eremua.

1. Foru lege honen bidez deklaritzen da irekiak eta irisgarriak direla finantza-entitateetan irekitako Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren banku-kontu guztiak, bai eta haren menpekoak edo harekin lotutakoak diren erakunde publikoen, sozietate publikoen, fundazio publikoen eta zuzenbide publikoko entitateenak, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legearen 2. artikuluaaren esparru subjektibaren barruan sarturik daudenenak, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoarenak.

2. Kontu ireki eta irisgarri bat da edozein herritarren irismenean dagoena, foru lege honetan ezarritako moduan eta baldintzetan.

3. Eskubide horren mugak dira Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 1eko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoaren ondoriozkoak nahiz daturen baten izaera sekretua espresuki ezartzen duen beste edozein arauk ezarritakoaren ondoriozkoak.

2. artikulua. Kontu publikoak.

1. Aurreko artikuluan xedatutakoa egingarria izan dadin, foru lege honen aplikazio-esparruan dauden entitate eta erakunde guztiek publiko egin beharko dituzte beraiek titularrak direneko kontuak eta kontu horien saldoa, foru lege honetan aurreikusitako moduan. Betiere, kontu bakoitzaren honako datu hauek agertu beharko dira:

a) Kontu edo kutxa mota.

b) Izena.

c) Titulartasuna.

d) Kokalekua eta identifikazioa.

e) Banku-, finantza- edo kreditu-entitatea eta, kasua bada, sukurtsala, eta kontu-zenbakia (IBAN kodea). Halere, segurtasun-arrazoiak direla-eta, kontu-zenbakia behar bezala kodetarik erakutsiko da, halako moduan non kontuaren identifikazioko lehendabiziko lau eta azken lau digituak soilik argitaratuko baitira.

f) Kontuari lotutako identifikazio fiskaleko zenbakia.

g) Guztizko saldoa.

h) Nafarroako Gobernuak ezartzen duen beste edozein.

3. Informazio argitaratua eguneratu egingen da hamabost eguneko epean, hiruhileko bakoitzaren azken egunetik hasita. Hiruhilekotzat joko da urtealdia lautan zatitzea, eta lehenengoa urtarriletik martxora bitartekoa da. Xede diren hilabeteetako hilabetealdi-saldoak xeheki adieraziko dira egun horretan.

3. artikulua. Argitaratze-lekua.

Foru lege honetan ezarritako gardentasun-betekizunei lotutako informazio guztia argitaratu egingen da Gobernu Irekiaren Atarian eta Nafarroako Unibertsitate Publikoarenan, edo ataria etorkizunean ordezkatzeko duen kasuko gunean, bakoitzari dagokion informazioa emanda.

4. artikulua. Aurkezpena.

1. Bankuek beren bezeroei informazioa emateko darabiltzaten estandar arrunten arabera aurkeztuko da informazioa, betiere ahalbidetuz erakutsitako datuen ulergarritasuna, bai eta kontuak

arloka eta kontuen organo titularren arabera antolatuta egotea ere.

2. Kontuen banku-laburpenen datuetarako irispidea egokituko zaio, segurtasunaren eta elkarrengarritasunaren arloetan, honako hauek xedatuari: Administrazio Elektronikoaren esparruan Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretua eta Administrazio Elektronikoaren esparruan Elkarreragingarritasuneko Eskema Nazionala arautzen duen urtarrilaren 8ko 4/2010 Errege Dekretua.

5. artikulua. Formatua.

1. "Datu ireki" formatuan egonen dira argitaratutako datu guztiak, halako moduan non Administrazioakoak ez diren hirugarren pertsonak behera kargatzeko, berriz erabiltzeko eta berriz banatzeko moduan egonen baitira.

2. Hori guztia egingen da honako hauek ezartzen dutenaren arabera: urtarrilaren 8ko 4/2010 Errege Dekretua, Administrazio Elektronikoaren esparruan Elkarreragingarritasuneko Eskema Nazionala arautzen duena; urriaren 24ko 1495/2011 Errege Dekretua, Estatuaren sektore publikorako garatzen duena azaroaren 16ko 37/2007 Legea, sektore publikoko informazioaren berrerabilerari buruzkoa; eta apirilaren 4ko 11/2007 Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan Administrazio Elektronikoa ezartzekoa.

6. artikulua. Erantzukizuna.

1. Departamentu bakoitzeko idazkaritza nagusi teknikoei edo gisako organoei dagokie zaintzea foru lege honetan ezarritako manuak betetzen direla, bai beren kontu berekiei bai foru lege honen aplikazio-esparruan egonik haren menpekoak diren edo harekin lotura duten erakunde eta entitateen kontuei dagokienez.

2. Diruzaintza-eginkizunak betetzen dituen organoak foru lege honetan xedatutakoaren arabera emanen ditu existitzen diren kontu eta kutxa guztiei buruzko datuak.

7. artikulua. Jarraipena.

Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluak foru lege honetan ezarrita dauden betebeharrak betetzen direla zainduko du, eta Nafarroako Parlamentuari nahiz herritarrei aurkeztu beharreko dokumentazioan atal berezi bat gehituko du, haien betetze-mailari buruzkoa.

Lehen xedapen gehigarria. Gardentasuna beste erakunde batzuetan sustatzea.

Nafarroako Foru Komunitateko erakunde ezberdinek, zeinek bere eskumen-arloan, gardentasunerako neurriak hartuko dituzte urtebeteko epean, foru lege honetan jasotako printzipio eta aurreikuspenekin bat.

Azken xedapenetan lehena. Nafarroako Gobernuari ahalmena ematea erregelamendu bidezko garapena egiteko.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio beharrezkoak diren erregelamenduzko xedapenak eman ditzan bere eskumenean esparruan, foru lege honetan xedatutakoa garatzeko eta aplikatzeko, ezertan eragotzi gabe honen aplikazio-esparruan sarturik dauden subjektu ezberdinek daukaten betebeharra, kasuko neurriak hartzeko, bakoitzak bere eskumen-esparruan legearen manuak betetzera zuzenduak.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

1. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

2. Foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita hiru hilabete epean, publiko egingen dira aplikazio-esparru subjektiboan definitutako entitateen titulartasuna daukaten kontu guztiak, bai eta bakoitzaren banku-entitatea, kontua irekitzeko baliatu zen identifikazio fiskaleko zenbakia eta saldoa ere, zeina hilero gaurkotuko baita, harik eta hurrengo idatz-zatian adierazten diren datuak kontsultatzen ahal diren arte.

3. Foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita sei hilabete epean, beharrezkoak diren bitartekoak ezarriko dira, irispidea izatekoak foru lege honen esparru objektiboan jasotzen diren kontuetako bakoitzaren laburpenetara eta horietan gertatzen diren mugimenduetara.

Azken xedapenetan hirugarrena. Ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legea aldatzea, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzkoa.

Letra berri bat gehitzen zaio Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legeko 13. artikuluari. Hona edukia:

f bis) Titularrak direneko finantza-entitateetan irekitako banku-kontuak, Kontu Irekiei buruzko Foru Legean ezarritako moduan eta baldintzetan.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du arbuia-
tu egiten duela Ekonomiako eta Merkataritzako Akordio Globala
(Comprehensive Economic and Trade Agreement).**

OGASUNEKO ETA FINANTZA POLITIKAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Ogasuneko eta Finantza Politikako Batzordeak, 2016ko urriaren 14an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du arbuia egiten duela Ekonomiako eta Merkataritzako Akordio Globala (Comprehensive Economic and Trade Agreement)"

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak, Europar Batasunaren eta Kanadaren artean negoziatzen ari diren akordio-proiektuak izan litzakeen ondorio negatibo handiak aurreikusirik, adierazten du arbuia egiten duela "Ekonomiako eta Merkataritzako Akordio Globala" (ingelesez, CETA-Comprehensive Economic and Trade Agreement).

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jarrera hori adieraz eta defenda dezan parte hartzen duen Europa-mailako organo eta erakundeetan; esate baterako, Erregioen Batzordean.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du parte hartzen duen foro guztietan aintzat har eta defenda dezan akordioa berretsi aitzin erreferendum bat egin beharko dela betiere, Europar Batasuneko estatu kide guztietan, Europar Batasunaren eta Kanadaren arteko merkataritza-akordio baterako proposamen orori buruz; eta defenda dezan, halaber, munta horretako auziei buruz aurrera eramaten den negoziazio

eta politika mota oro gardentasunez eta herritar guztien eskueran egitea.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hark bere aldetik Espainiako Gobernua premia dezan Europar Batasuneko Justizia Auzitegiari eska diezaion akordio horren eta Europako tratatuen arteko bateragarritasunari buruzko irizpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 218 (11) artikulua oinarri hartuta, ekidite aldera Europako tratatuekin bateraezina den akordio bat gauzatea, eta ez dezan akordioa berrets harik eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak bere iritzia eman arte.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hark bere aldetik Espainiako Gobernua premia dezan CETAREN behin-behineko aplikazio oro errefusatzera, eta Europako Batzordeak itxaron behar izan dezan harik eta berreste-prozedura nazional guztiak burutu arte, europar herritarren ahotsa entzute aldera akordioaren balizko indar-hartzea baino lehen.

6. Jakitera emanen da Nafarroako Parlamentuak arbuia egiten duela akordio-proiektu hau negoziatzean darabilten ezkutukeria, arbuio honi publizitatea eman ez eskueran dituen hedabideetan, eta erraztu eta sustatu egiten da herritarrei CETARI buruzko informazioa ematea, bai berariazko kanpainak eginez, bai Parlamentuaren jardura publiko arruntean."

Iruñean, 2016ko urriaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, eragile sozialekiko eta GKEekiko hitzarmenen kudeaketa-eredua ezartzeko hartu diren neurri zehatzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maribel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, eragile sozialekiko eta GKEekiko hitzarmenen kudeaketa-eredua ezartzeko hartu diren neurri zehatzei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko ekainaren 10eko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Maribel García Malo andreak galdera egin du Eragile sozialekiko eta GKEekiko hitzarmenen kudeaketa-eredua ezartzeko hartu diren neurri zehatzei buruz (9-16/PES-00256). Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako lehendakariordearen erantzuna:

NL-SNEren kudeaketa eredu berria erakundearen estatutuak abenduaren 2ko 263/2015 Foru Dekretuaren bitartez onestearekin ezarri zen. Estatutu hauekin, lan-merkatuan presente dauden sindikatu- eta enpresa-erakunde gehiagoren parte-hartzea sustatu zen. Halaber, gobernu-organoen egitura aldatu zen, zertarako eta Administrazioak ordezkatzeko duen interes orokorrari lehentasuna emateko, adostasunik lortu ezean. Halaber, gobernu-organok erakundearen aurrekontuak onesteko zeukan eskumena kendu zen.

Modu paraleloan, teknikoki aztertu ziren NL-NEZaren programak, entitateekin sinatutako lankidetzeta-hitzarmenen bitartez aurrera eramandakoak. 2015eko azaroan, hitzarmen horietako bakoitzeko txosten tekniko bat eman zen; hartan, honakoak egiten dira: programaren justifikazioa identifikatu, haren interesa baloratu eta kontusail

izendunari eusteko arrazoiak nabarmendu, eta etorkizunerako jarduketa-proposamenak adierazi. Azterketa hori dela eta, erabaki zen programak kendu edo aldatzea, honako irizpide hauekin:

- Enplegu agentziek edo/eta programa horiek betetzeko gaitasun zehatz bat duten profesionalak exijitzen dituztenek egindako jarduketan osagarri diren hitzarmenei eustea (orientazioa, enplegagarritasuneko ibilbidea, kolektibo ahulei laguntzea, kualifikazioko ibilbideak, zuzendaritza-karguetarako prestakuntza).

- Lehentasunezko helburu bat ez duten, zerbitzuen bikoiztasuna dakarten edo/eta beste programa batzuen bitartez kudea daitezkeen hitzarmenak kentzea.

Halaber, 2016. urterako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 29ko 1/2016 Foru Legeko 37. artikulua NL-NEZaren kontusail izendun kreditua banatzeko sistema berria ezartzen du. Kontusail horiek Gobernuaren erabakiz banatzen dira, sindikatu- eta enpresa-erakundeek aurkeztutako proposamenen bitartez eta Gobernu Kontseiluak finkatutako ekintza-ildoei jarraituz. Hartara, kudeatzaileek ikuspuntu teknikotik aztertu zituzten entitateek aurkeztu eta kontusail izendun kargura finantzatu behar ziren proiektuak, eta kontusailak zirela-eta entitate parte-hartzaile desberdinen arteko banaketa ekonomiko bat proposatu zuten. Proposamen tekniko hori Gobernu Kontseiluak onetsi zuen, eta aurrerago Nafarroako Gobernuak onetsi zuen 2016ko otsailaren 17 erabakiaren bitartez.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko ekainaren 28an

Eskubide Sozialetako lehendakariordea:
Miguel Laparra Navarro

Galdera, Gazteen Bermearen 2015eko Sistemari inskribatuta dauden gazte langabeak kontratatzeke toki entitateentzako laguntzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maribel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Gazteen Bermearen 2015eko Sistemari inskribatuta dauden gazte langabeak kontratatzeke toki entitateentzako laguntzei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko ekainaren 10eko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Maribel García Malo andreak galdera egin du Gazteen Bermearen 2015eko Sistemari inskribatuta dauden gazte langabeak kontratatzeke toki entitateentzako laguntzei buruz (9-16/PES-00257). Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozietateko lehendakariordearen erantzuna:

Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen irailaren 30eko 1950/2015 Ebazpenaren bitartez, Nafarroako toki entitateei diru-laguntzak emateko arauak ezartzen dira, Gazteen Bermearen Sistemari inskribaturiko gazte langabeak lan munduan txertatzea errazteko asmoz.

Deialdi horrekin, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik

2015eko abenduaren 31ra arte toki entitateek egindako kontratazioak finantzatu ziren. Kontratazio horiek gutxienez 6 hilabeteko iraunaldia eduki behar zuten. Emateko unean ordaindu zen diru-laguntza; horrenbestez, espediente guztiak ekonomikoki likidatuta daude.

Deialdi hamalagarren oinarriak ezartzen duenez, organo kudeatzaileak egiaztatuko du deialdi honen bidez finantzatu den kontratazioaren xedeko pertsona gutxienez 6 hilabetez egon dela kontratatua eta Gizarte Segurantzari alta-egoeran, betiere hasierako kontratuaren egunetik hasita. Horrenbestez, espedienteen itxiera eta, ez betetze kasuan, itzulketa-espedientearen hasiera, eginen dira organo kudeatzaileek egiaztatu ondoren eskatutako baldintzak betetzen direla, behin diru-laguntzaren xede den kontratua mugaegunera iritsita.

Sinatutako kontratu guztiak azarokoak eta abendukoak dira; horrenbestez, maiatza eta ekaina bitartean dute amaierako data. Hori dela eta, diruz lagundutako kontratuak amaitu ez direnez, itxitako espediente bakarra ere ez dago aipatutako deialdiari dagokiona, eta ezin dugu daturik eman izapidetutako itzulketa-espedientei buruz.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduari 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko ekainaren 28an

Eskubide Sozietateko lehendakariordea:
Miguel Laparra Navarro

Galdera, Iruñeko katedraleko klaustroa zaharberritzeko sinatu den hitzarmenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Iruñeko katedraleko klaustroa zaharberritzeko sinatu den hitzarmenari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko ekainaren 10eko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du "Foru Komunitateak, Iruñeko eta Tuterako Artzapezpikutzak, La Caixa banku-fundazioak eta Nafarroako Kutxa fundazioak hitzarmen bat sinatu izanari buruz Iruñeko katedraleko klaustroa zaharberritzeko" (9-16/PES 00258). Hona Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariak informatu beharrekoa:

Kultura Zuzendaritza Nagusiak jada Artzapezpikutzako ordezkariari helarazi die egungo bisita-erregimenetik heldutako gastuei eta diru-sarrerari buruzko txosten bat egiteko beharra, bai eta Jarraipen Batzordearekin adostasun batera iristeko proposamena ere, hartara irisgarritasun handiagoa eta doako bisitaldietarako aurrez finkatuta dauden ordutegiez kanpoko programazioa bermatzeko.

Lehenengo informazioan, Artzapezpikutzatik jakinarazi digute bisitei esker bildutako dirua neurri handi batean erabiltzen dela Occidens erakusketarako bisitak artatzen diharduten pertsonen ordaintzeko. Nolanahi ere, hitzarmenaren jarraipen batzordeak proposatu du aztertzea sartzegatik kobratu behar ote den.

Hitzarmenak aurreikusten du esku-hartzeari buruzko informazioarako, zabalkunderako eta ezagutzera emateko proiektu oso bat egitea, bai bera egiten den bitartean, bai haren amaieran ere.

Hartara, seigarren klausulak ezartzen du hitzarmenaren jarraipen batzorde bat eratzen dela, Nafarroako Gobernuak izendatutako hiru kidek osatua: bat Nafarroako Kutxa Fundazioak izendatuko du, beste bat "La Caixa"ko Obra Sozialak eta

beste bat Iruñeko eta Tuterako Artzapezpikutzak. Besteak beste, proiektuaren sinatzaileei proposatuko die esku-hartzeari buruzko informazioarako, zabalkunderako eta ezagutzera emateko proiektu bat, bai esku-hartzea egiten den bitarteko, bai haren amaierako ere. Ekintzetan jasota utziko da obrak sustatzen eta finantzatzen dituztenen parte-hartzea. Urte bakoitzerako aurrekontua 30.000 eurokoa izanen dela jotzen da.

Batzordeak proposatzen duena eta aldeek adosten dutena ezertan kendu gabe, proiektuak honako hauek jasoko ditu:

- Zaharberritze-prozesuari buruzko komunikazio plan bat landu eta aurrera eramatea, behar diren komunikazio-tresnak erabiliz: bideoak, argazkia, weba, sare sozialak.

- Aurkezpenen eta hitzaldien programazioa.

- Kultur ekitaldiak antolatzea (musika, erakusketak...).

- Komunikabideetan, interneten eta bestelako informazio-euskarrietan (dosierrak, prentsa-oharrak, panelak, triptikoak...) zabaltzeko materiala prestatzea.

- Bisitaldien eta zabalkunderako beste ekitaldi batzuen programazio integrala, gisa guztietako hartzaileentzat: gazteak, profesionalak, hirugarren adinekoak eta abar.

- Hezkuntza-programa baten plangintza berriazkoa (materialak, bisitaldiak, eskolako eta eskolaz kanpoko jarduerak...), ahal den ikasle kopuru handienarentzat.

- Elkartea, kolektibo eta bestelako entitateekiko lankidetzara, ezagutzera emateko eta zabaltzeko ekitaldien programazioa dela eta.

Eliza Katolikoak immatrikulatu dituen eta zaharberritze-obretarako funts publikoak inbertitu diren eliza edo monumentuen datuei dagokienez, zeinetan sartzeko sarrera kobratzen baita, esan behar dizut 2014ko zerrenda bat badagoela, baina konprobatu ahal izan dugu nabarmen osatu gabea dela; beraz, berrikusi egin behar dugu. Bera gaurkotzeko, Turismo Zuzendaritza Nagusiaren (Garapen Ekonomikorako Departamentua) laguntza edukiko dugu, gure datuak haiek monumentuen irekitzea kudeatzeko daukaten informazioarekin alderatzeko eta bateratzeko, informazio hori bere web-orrian eskaintzen baita.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2016ko ekainaren 29an

Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilaria: Ana Herrera Isasi

Galdera, jakitekoa ea zertan den Eliza Katolikoak eginiko immatrikulazioak direla-eta Parlamentuko Osoko Bilkurak onetsitako erabakiaren betetzea.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Laura Pérez Ruano andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakitekoa ea zertan den Eliza Katolikoak eginiko immatrikulazioak direla-eta Parlamentuko Osoko Bilkurak onetsitako erabakiaren betetzea. Galdera argitaratu zen 2016ko ekainaren 10eko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko uztailaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Podemos-Ahal dugu parlamentu-taldeko foru parlamentari Laura Pérez Ruano andreak idatziz erantzuteko honako galdera hau egin du (9-15/PES-00259): Nafarroako Parlamentuak, 2016ko apirilaren 7an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen, 2016ko apirilaren 14ko 52. Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean arabera: "Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Justizia Ministerioaren aldetik jaso ditzan Eliza Katolikoak Nafarroan 1946tik gaur egun arte egin dituen immatrikulazio guztiak". Zenbateraino bete da Eliza Katolikoak eginiko immatrikulazioak direla-eta Nafarroako Gobernua Legebiltzarreko Osoko Bilkurak onetsitako erabakiak bete ditzan premiatzen duen erabaki horren 2. puntua? Hau da Lehendakariartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariaren erantzuna:

Erantsitako dokumentuan egiazta daitekeen bezala, Justizia Ministerioko Erregistro eta Notarioritzaren Zuzendaritza Nagusiari eskatu zaio galderan aipatzen den informazioa. Gaur den egunean, erantzunaren zain gaude.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko ekainaren 27an

Lehendakariartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilaria: María José Beaumont Aristu

Lehendakariartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariak 2016ko ekainaren 27an erantzuna eman zion Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeko foru parlamentari Laura Pérez Ruano andreak idatziz erantzuteko egin zuen galderari (9-15/PES-00259). Erantzun hartan esan genion Justizia Ministerioko Erregistro eta Notarioritzaren Zuzendaritza Nagusiari eskatua geniola galderan aipatzen zen informazioa. Bada, erantzun haren jarraipen gisa, Justizia Ministeriotik jaso dugun 2016ko uztailaren 1eko erantzuna eranstean dizut.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko uztailaren 5ean

Lehendakariartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilaria: María José Beaumont Aristu

(Oharra: erantsitako dokumentuak eskuragarri dituzte foru parlamentariak, Parlamentuaren kudeaketarako Ágora sisteman).

**Galdera, “410001 41800 6020 325100 - Ikastetxe berrien eraikuntza”,
“410001 41800 7609 325103 - Ikastetxe berrien eraikuntza” eta
“4110001 41210 4812 322304 - Prestakuntza Planerako Laguntzak”
kontusailei buruzkoa.**

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “410001 41800 6020 325100 - Ikastetxe berrien eraikuntza”, “410001 41800 7609 325103 - Ikastetxe berrien eraikuntza” eta “4110001 41210 4812 322304 - Prestakuntza Planerako Laguntzak” kontusailei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko ekainaren 10eko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldea 9-16/PES-00260 informazio-eskaria aurkeztu du Hezkuntza Departamentuaren zenbait kontusailen izandako aldaketei buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Hezkuntzako kontseilariaren INFORMAZIOA:

Blokeatutako zenbatekoei buruz, esan beharra daukagu honako hauek izan direla.

- 410001 41800 6010 325100 “Ikastetxe berrien eraikuntza” kontusaila: 747.251 euro
- 410001 41800 7609 325103 “Ikastetxe berrien eraikuntza” kontusaila: 678.053 euro
- 410001 41210 4812 322304 “Prestakuntza planerako laguntzak” kontusaila: 169.038 euro

Kontusail horien blokeatze partziala eginez ez zaie kalterik egiten Hezkuntza Departamentuak egiten dituen jarduketak nagusiei; honako hauek dira jarduketak horiek:

- Sarrigurengo IPa eraikitze lanak
- Buztintxuri IPa eraikitze lanak
- Castejongo DBHla eraikitze lanak
- Erronkariko IP berria egiteko proiektua
- Sanduzelaiko BHI berria egiteko proiektua
- Iturrama BHla zabaltze lanak
- Iturrama BHla zabaltze lanak
- Lorenzo Goicoa IPa handitze lanak
- Murchanteko IPa zabaltze lanak
- Arantzako IPa egokitzeko lanak
- Uharteko BHla egokitzeko lanak
- Donibane BHla egokitzeko lanak
- Mutiloako IPa handitze proiektua

Jarduketa txiki batzuk luzatu egingen dira (esate baterako lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetako patio batzuk estaltzea).

“Prestakuntzarako eta Ikerketa eta Garapenerako Planerako laguntzak” izeneko 411001-41210-4812-322304 kontusailari dagokionez, doikuntzak laguntzen zenbatekoa berriz finkatzea ekarri du. Laguntzak eskaintzen jarraitzen da, eta gaur egun izapidetzeko dago honako hau Gobernuaren erabaki bezala onestea: I+D arloko prestakuntza planeko doktoretza aurreko laguntzen programako 2016ko deialdia finantzatzeko Ebazpena.

Iruñean, 2016ko ekainaren 23an.

Hezkuntza Departamentuko kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek egindako esku-hartzeei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mónica Doménech Linde andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek egindako esku-hartzeei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko maiatzaren 13ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko abuztuaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Mónica Doménech Linde andreak galdera bat egin du (9-16/PES-00207), oinarrizko gizarte zerbitzuek egindako esku-hartzeei buruz. Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako lehendakariordearen erantzuna:

2016ko maiatzaren 5eko idazkiaren bitartez, aipatutako parlamentariak eskatu zuen Eskubide Sozialetako lehendakariordeak idatziz erantzun zezan “2015eko esku-hartzei eta 2016ko datuei buruz, erreferentziako sektorea, aplikatutako baliabideak eta esku-hartze bakoitzaren jarraipenerako kudeaketak zehaztuta”

PES 9-16-00207 galderari emandako erantzunean aipatu bezala, “ematen diren datuak gizarte zerbitzuetako erabiltzaileen informazio sistematik (SIUSS v.5) loru dira. Sistema honek web-ingurune batean lan egiten du, eta datu-basea Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioan dago ostatatua, nahiz eta autonomia erkidego bakoitzak datu estatistikoak edozein unetan eskura ditzakeen. Hala eta guztiz ere, Iruñeko Udaleko auzo unitateek SIUSSen lehena-goko bertsio bat erabiltzen dute, zeinak oraindik ere ez baitu web-ingurunean lan egiten; hori dela eta, Eskubide Sozialetako Departamentutik ezin ditugu ustiatu entitate horren 2016ko datuak”

Hala eta guztiz ere, toki entitateen eta Eskubide Sozialetako Departamentuaren arteko lankidetzak ohikoa da. Hori dela eta, Iruñeko Udaleri 2016. urteari buruzko datuak eskatu zaizkio, eta horiei buruzko informazioa ematen dugu ondoren.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko abuztuaren 3an

Eskubide Sozialetako lehendakariordea:
Miguel Laparra Navarro

Zein da oinarrizko gizarte zerbitzuek egindako esku-hartzeen kopuruaren banaketa?

2016ko URTARRILA ETA MAIATZA ARTEKO DATUAK	ESKU-HARTZEEN KOPURUA
BUZTINTXURI	832
ALDE ZAHARRA	1.069
TXANTREA	1.661
ETXABAKOITZ	888
ZABALGUNEA	1.369
ERMITAGAÑA	654
ITURRAMA	789
MENDILLORRI	770
MILAGROSA	1.758
ARROTXAPEA	2.098
SANDUZELAI	1.237
DONIBANE	1.122
IRUÑA, GUZTIRA	14.247

Esku-hartzeak erreferentziako sektorearen arabera banakatuta, esate baterako, familia, adinekoak eta etorkinak. (2016ko urtarriletik maiatzera bitarteko datuak)

ERREFERENTZIAKO SEKTOREAK: 2016ko URTARRILA ETA MAIATZA ARTEKO DATUAK	ESKU-HARTZEEN KOPURUA
KATASTROFE-ARRISKUEK SORTUTAKO BEHARRA DUTENEN KOLEKTIBOA	1
DROGAREN MENPEKOAK	92
EMIGRANTEAK	175
GAIXO TERMINALAK	0
FAMILIA	3080
HAURRAK	490
ETORKINAK	1751
GAZTEAK	316
GUTXIENGO ETNIKOAK	238
EMAKUMEAK	428
BEHAR-EGOERAN DAUDEN BESTE TALDE BATZUK	5.016
DESGAITASUNAK DITUZTEN PERTSONAK	523
BURU-GAIXOTASUNA DUTEN PERTSONAK	92
ZAHARRAK	1942
ETXERIK GABEKO PERTSONAK	34
PRESOAK ETA PRESO-OHIAK	58
ERREFUXIATUAK ETA BABESTUAK	11
GUZTIRA	14.247

Iruñean egindako esku-hartzeak, aplikatutako baliabide-multzoen arabera (2016ko urtarriletik maiatzera bitarteko datuak)

2016-01-01etik 2016-05-24ra	1- informazioa, orientabidea, balioespina eta baliabideak jartzea	2- Bizikidetasun-unitateari laguntzeko eta etxez etxeko laguntza emateko prestazioak eta jarduketak	3- Prestazioak, jarduketak eta ostatu-emate alternatiboko neurriak	4- Prebentzioaren eta gizarteratzearen arloko prestazioak eta jarduketak	5- Biziraupeneko beharrianak estaltzeko baliabide osagarriak	Guztira
IRUÑA	4.284	1.496	272	1.414	6.781	14.247

Iruñeko kudeaketan banaketa (2016ko urtarriletik maiatzera bitarteko datuak)

2016-01-01etik 2016-05-24ra	1- informazioa, orientabidea, balioespina eta baliabideak jartzea	2- Bizikidetasun-unitateari laguntzeko eta etxez etxeko laguntza emateko prestazioak eta jarduketak	3- Prestazioak, jarduketak eta ostatu-emate alternatiboko neurriak	4- Prestazioak eta prebentzioko eta gizarteratze jarduketak	5- Biziraupeneko beharrianak estaltzeko baliabide osagarriak	Guztira
IRUÑA	4.284	1.496	272	1.414	6.781	14.247

Galdera, Gizarte Zerbitzuen Erabiltzaileen Informazio Sistemari biltzen diren Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek egindako esku-hartzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin Mónica Doménech Linde andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Gizarte Zerbitzuen Erabiltzaileen Informazio Sistemari biltzen diren Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek egindako esku-hartzei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko maiatzaren 13ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko abuztuaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Mónica Doménech Linde andreak galdera bat egin du (9-16/PES-00209) Gizarte Zerbitzuetako Erabiltzaileen Informazio Sistemari biltzen diren Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek egindako esku-hartzei buruz. Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako lehendakariordearen erantzuna:

2016ko maiatzaren 5eko idatziaren bitartez, aipatutako parlamentariak Eskubide Sozialetako kontseilariari eskatu zion idatziz erantzun ziezaien honako galdera honi: "Zer esku-hartze egin dute Gizarte Zerbitzuen Erabiltzaileen Informazio Sistema delakoan biltzen diren Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako profesionalak 2015ean, Nafarroako

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen arreta jaso duten erabiltzaileen kopurua eta profila zehaztuta? Eskura al daude, dagoeneko, 2016an iragandako hila-beteetako datuak?

PES 9-16-00209 galderari emandako erantzunean aipatu bezala, "ematen diren datuak gizarte zerbitzuetako erabiltzaileen informazio sistemari (SIUSS v.5) loru dira. Sistema honek web-ingurune batean lan egiten du, eta datu-basea Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioan dago ostatatua, nahiz eta autonomia erkidego bakoitzak datu estatistikoak edozein unetan eskura ditzakeen. Hala eta guztiz ere, Iruñeko Udaleko auzo unitateek SIUSSen lehengoko bertsio bat erabiltzen dute, zeinak oraindik ere ez baitu web-ingurunean lan egiten; hori dela eta, Eskubide Sozialetako Departamentutik ezin ditugu ustiatu entitate horren 2016ko datuak."

Hala eta guztiz ere, toki entitateen eta Eskubide Sozialetako Departamentuaren arteko lankidetzak ohikoa da. Hori dela eta, Iruñeko Udaleri 2016. urteari buruzko datuak eskatu zaizkio, eta horiei buruzko informazioa ematen dugu ondoren.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko abuztuaren 3an.

Eskubide Sozialetako lehendakariordea:
Miguel Laparra Navarro

Zer ezaugarri dituzte erabiltzaileek, sexuaren eta adinaren arabera banaketan?

SEXUAREN ARABERAKO BANAKETA IRUÑEKO DATUAK, 2016ko URTARRILETIK MAIATZERA BITARTEKOAK	EMAKUMEA	GIZONA	BETE GABE
BUZTINTXURI	383	233	4
ALDE ZAHARRA	403	361	11
TXANTREA	879	727	13
ETXABAKOITZ	296	273	7
ZABALGUNEA	666	402	10
ERMITAGAÑA	243	199	1
ITURRAMA	287	223	1
MENDILLORRI	373	255	4
MILAGROSA	909	797	9
ARROTXAPEA	968	859	27
SANDUZELAI	610	572	5
DONIBANE	512	376	7
IRUÑA, GUZTIRA	6529	5277	99

ADINAREN ARABERAKO BANAKETA IRUÑEKO DATUAK, 2016ko URTARRILETIK MAIATZERA BITARTEKOAK	EMAKUMEA	GIZONA	BETE GABE
0 - 3 urte	176	181	0
4 eta 5 bitarte	122	121	0
6 eta 17 bitarte	692	800	5
18 eta 30 bitarte	839	666	3
31 eta 64 bitarte	2647	2179	1
65 eta 74 bitarte	188	127	0
74 baino gehiago	693	296	4
Bete gabe	1172	907	86
IRUÑA, GUZTIRA	6529	5277	99

Nola banatzen dira, egoera zibilaren arabera?

IRUÑEKO 2016ko URTARRILA ETA MAIATZA ARTEKO DATUAK	Erabiltzaile kopuruak
EZKONDUA	3164
DIBORTZIATUA	735
BANANDUA, EGITATEZ	352
BANANDUA, LEGEZ	414
Bete gabe	223
EZKONGABEA	6342
ALARGUNA	675
IRUÑA, GUZTIRA	11.905

Nola banatzen dira, ikasketa mailaren arabera?

IRUÑEKO 2016ko URTARRILA ETA MAIATZA ARTEKO DATUAK	Erabiltzaile kopuruak
IRAKURTZEN ETA IDAZTEN IKASTEN ARI DEN HELDUA	13
ESKOLA GRADUATUA EDO HAREN BALIOKIDEA LORTZEKO IKASTEN ARI DEN HELDUA	5
IRAKURTZEN ETA IDAZTEN DAKIEN HELDUA (IKASKETARIK GABEA)	193
ANALFABETOA	65
BATXILERGOA EDO UBI DUENA	172
LEHEN HEZKUNTZAKO ZIURTAGIRIAREKIN EDO ESKOLA-ZIURTAGIRIAREKIN	394
MAILA ERTAINEKO UNIBERTSITATE IKASKETEKIN EDO HAIEKIN PAREKATUTAKO IKASKETEKIN	50
GOI MAILAKO UNIBERTSITATE-IKASKETEKIN	52
MAILA ERTAINEKO LANBIDE HEZIKETAREKIN EDO HAREN BALIKIDE DIREN IKASKETEKIN	93
GOI MAILAKO LANBIDE HEZIKETAREKIN EDO HAREN BALIKIDE DIREN IKASKETEKIN	29
BATXILERGOA EDO UBI EGITEN ARI DENA	25
HEZKUNTZA BEREZIA IKASTEN ARI DENA	2
HAUR HEZKUNTZA IKASTEN ARI DENA	104
DERRIGORREZKO HEZKUNTZA IKASTEN ARI DENA (16 URTE BITARTEKOA)	382
MAILA ERTAINEKO UNIBERTSITATE IKASKETAK EDO PAREKATUTAKO IKASKETAK EGITEN ARI DENA	12
GOI MAILAKO UNIBERTSITATE-IKASKETEN ARI DENA	16
MAILA ERTAINEKO LANBIDE HEZIKETA EDO HAREN BALIKIDE DIREN IKASKETAK EGITEN ARI DENA	31
GOI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA EDO HAREN BALIKIDE DIREN IKASKETAK EGITEN ARI DENA	18
DERRIGORREZKO HEZKUNTZA AMAITUA	73
ESKOLATU GABE (DERRIGORREZKO ESKOLA-ADINA BAINO LEHEN)	108
ESKOLATU GABE (DERRIGORREZKO ESKOLA-ADINEAN)	6
BETE GABE	10.062
Orokorra, guztira	11.905

** Siuss V4 aplikazioak ez du aldagai hori ematen sexuaren araberako xehetasunekin

Nola banatzen dira erabiltzaileak, nazionalitatearen arabera?

IRUÑEKO 2016ko URTARRILA ETA MAIATZA ARTEKO DATUAK	Erabiltzaile kopuruak
AFGANISTAN	1
ALBANIA	1
ALEMANIA	3
ANGOLA	1
ABERRIGABEA	2
ALJERIA	120
ARGENTINA	37
ARMENIA	4
AUSTRALIA	2
BAHAMAK	2
BANGLADESH	2
BOLIVIA	376
BRASIL	78
BULGARIA	181
KAMERUN	25
TXILE	27
TXINA	15
TXIPRE	1
KOLONBIA	162
KONGO	24
COSTA RICA	1
KUBA	45
DOMINIKA	9
EKUADOR	390
EGIPTO	7
EL SALVADOR	2
ESLOVENIA	5
ESPAINIA	5.530
ESTATU BATUAK	1
FRANTZIA	7
GEORGIA	2
GHANA	62
GUATEMALA	4
GINEA	17
GINEA BISSAU	4
EKUATORE GINEA	8
HOLANDA	1
HONDURAS	33
IRLANDA	1
ITALIA	14
KENIA	6
LIBERIA	1

IRUÑEKO 2016ko URTARRILA ETA MAIATZA ARTEKO DATUAK	Erabiltzaile kopuruak
LIBIA	1
MALI	32
MALTA	2
MAROKO	367
MAURITANIA	7
MEXIKO	5
MOLDAVIA	35
MOZAMBIKE	1
NEPAL	5
NIKARAGUA	38
NIGERIA	223
PAKISTAN	37
PANAMA	5
PARAGUAI	12
PERU	166
POLONIA	11
PORTUGAL	86
DOMINIKAR ERREPUBLIKA	186
ERRUMANIA	403
ERRUSIA	28
SENEGAL	93
SIERRA LEONA	1
Bete gabe	2.810
TOGO	4
TUNIZIA	5
UKRANIA	87
URUGUAI	5
VENEZUELA	36
Orokorra, guztira	11.905

(SIUSS 4 aplikazioak ez ditu datu horiek ematen ez nazionalitate-taldeen arabera metatuta, ez sexuaren arabera berezita)

Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko lehendakaria hautatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko lehendakaria hautatzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko ekainaren 17ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko uztailaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentualdeari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak idatzizko galdera egin du José Luis Mendoza kontseilariaren adierazpenei buruz (9-16/PES-00261). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion erantzuna:

Bi kasuetan iritzi pertsonalak biltzen dituzten adierazpenak dira. Lehenengo kasuan, Gizarte Kontseiluko kide baten iritzia da, eta bigarren kasuan, kontseilari baten iritzi pertsonala. Nolanahi ere, adierazpen horiek agerian uzten dute Unibertsitatearen autonomiarekiko erabateko errespetua.

Gizarte Kontseiluko kideak kontseilukideei aitortzen zaien independentziarekin jokatu zuen, eta bai jarduneko buruak, bai errektoreak azaldutako arrazoiak entzunda, egokitzat jo zuen bozketarekin jarraitzea, eta halaxe adierazi zuen.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2016ko uztailaren 15ean

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Olló Hualde

Galdera, irakaslez bestelako langileak direla-eta Hezkuntza Departamentuak ikastetxeei eskatutako informazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, irakaslez bestelako langileak direla-eta Hezkuntza Departamentuak ikastetxeei eskatutako informazioari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko ekainaren 17ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentualdeak 9-16/PES-00262 informazio-eskaria aur-

keztu du. Hona hemen Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Irakasle ez diren langileen kontratua amaitzeko garaian, batzuetan gertatu izan da ezen, finikitoa jasota, interesdunek erabili gabeko opor-egunak erreklamatu dituztela. Horrek berarekin zekarren beste likidazio bat egiteko beharra eta, horrenbestez, ukitutako pertsonari ezinegona sortzea, zeren eta ez baitzuen finikitoan jasotzen erabili gabeko opor-egunei zegokien likidazio zuzena.

Irakasle ez diren langileek irakasleek daukate naz beste ordutegi bat dute, eta gerta daiteke ikastetxea irekita egon eta haien oporretan egotea, eta kontrakoa, ikastetxea itxita egotea eta haien lanean, zeren eta haien egikizunak desberdinak baitira eta ez baitaude zuzenean irakaskuntza-jarduerarekin lotuta. Kontrola ikastetxeak berak egiten du.

Hori dela eta, komenigarritzat jo zen ikaste-txeetara gutun bat bidaltzea, epe jakin baten barruan irakasle ez diren langileen opor-egunen berri eman zezaten, finikitoa prestatzeari begira, halako moduz non behar diren kontzeptu guztiak garaiz eta modu egokian ordainduko diren.

Kontua ez da inolaz ere egunak deskontatzea, baizik eta kontrakoa, hartu gabeko opor-egunei dagozkienak ordaintzea. Zirkularra bidaltzeko arra-

zoia da ezen, irakasle ez diren langileen ordutegi desberdinaren ondorioz, berma dadila garaiz jasotzea (finikitoarekin batera) behar diren ordainsari guztiak (horren barne direla hartu gabeko opor-egunak).

Iruñean, 2016ko ekainaren 29an

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, Fiteroko monasterioko klaustroaren zaharberritzea finantzatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Fiteroko monasterioko klaustroaren zaharberritzea finantzatzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko ekainaren 17ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko uztailaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Fiteroko monasterioko klaustroaren zaharberritzea finantzatzeari buruz (9-16/PES-00263). Hona Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariaren erantzuna:

Honako hauek izan dira Fiteroko Monasterioren klaustroko obrak esleitzeko finantzaketa, zenbatekoa, esleipen-prozedura eta enpresa esleipen-hartzaileak:

2008-2009 Fitero, monasterioa, klaustroa zaharberritzea, 1. fasea

Zenbatekoa: 664.070,52 euro

Finantzaketa: Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioa.

Esleipen-hartzailea: Construcciones Zubillaga S.A., Iruñekoa

Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 50.1.c) eta 70. artikuluetako prozedura negoziatua

2009-2010 Fiteroko monasterioa, klaustroaren zaharberritzea, 2. fasea

Zenbatekoa: 697.939,32 euro

Finantzaketa: Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioa.

Esleipen-hartzailea: Construcciones Zubillaga S.A., Iruñekoa

Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 50.1.c) eta 70. artikuluetako prozedura negoziatua

2011-2012 Fiteroko monasterioa, klaustroaren zaharberritzea, 3. fasea

Zenbatekoa: 904.628,19 euro

Finantzaketa: Kultura eta Turismo Departamentua

Esleipen-hartzailea: Construcciones Zubillaga S.A., Iruñekoa

Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 50.1.c) eta 70. artikuluetako prozedura negoziatua

2012-2013 Fiteroko monasterioa, klaustroaren zaharberritzea, 4. fasea

Zenbatekoa: 959.532,04 euro

Finantzaketa: Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentua

Esleipen-hartzailea: Construcciones Zubillaga S.A., Iruñekoa

Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 50.1.c) eta 70. artikuluetako prozedura negoziatua

2013-2014 Fiteroko monasterioa, klaustroaren zaharberritzea, 5. fasea

Zenbatekoa: 759.126,48 euro

Finantzaketa: Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentua

Esleipen-hartzailea: Construcciones Zubillaga S.A., Iruñekoa
Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 50.1.c) eta 70. artikuluetako prozedura negoziatua

2014-2015 Fiteroko monasterioa, klaustroaren zaharberritzea, 6. fasea

Zenbatekoa: 886.200,50 euro
Finantzaketa: Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentua eta Garpunen Erregionalerako Europako Funtsa, 424.427,45 euroko partaidetzarekin, Nafarroako FEDER 2007-2013 Programa Operatiboaren bitartez (LAP 58-Kultur ondareko ondasunak babestu eta kontserbatzea). Esleipen-hartzailea: Construcciones Zubillaga S.A., Iruñekoa
Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 50.1.c) eta 70. artikuluetako prozedura negoziatua

2015 Fiteroko monasterioa, klaustroaren zaharberritzea, 7. fasea

Zenbatekoa: 701.500,31 euro
Finantzaketa: Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentua eta Garpunen Erregionalerako Europako Funtsa, 332.355,18 euroko partaidetzarekin, Nafarroako FEDER 2007-2013 Programa Operatiboaren bitartez (LAP 58-Kultur ondareko ondasunak babestu eta kontserbatzea). Esleipen-hartzailea: Construcciones Zubillaga S.A., Iruñekoa
Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 50.1.c) eta 70. artikuluetako prozedura negoziatua

2016: Fiteroko monasterioa, klaustroaren zaharberritzea, 8. fasea

Zenbatekoa: 658.849,55 euro. (uztailaren 5eko 216/2016 Ebazpenaren bidez esleitu zen, bost hilabeteko exekuzio-epearekin)
Esleipen-hartzailea: Construcciones Zubillaga S.A., Iruñekoa
Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 50.1.c) eta 70. artikuluetako prozedura negoziatua.

Gutzizko kostua 6.231.846,91 eurokoa izan da. Kulturaren arloko departamentu eskudunak, Ondare Historikoaren Kontserbaziorako Fundazioak eta Europako funtsek finantzatu dute kopuru hori, fase bakoitzerako aipatutako xehakatzearen arabera. Iruñeko eta Tuterkaio Atzapezpikutzak ez du ekarpenik egin.

2016an, erabaki da zaharberritzearen azken fasea egitea, orain dela zortzi urte hasitako lanak amaitu ahal izateko –haietatik, izan ere, lehendik zazpi fase eginda zeuden– eta klaustroa ahal bezain laster publikoari zabaldu ahal izateko.

Monasteriorako sarbideari dagokionez, gaur arte bisita gidatuekin baizik ezin da sartu, eta haiek Turismoko Udal Bulegoak (astelehenetik larunbatera) edo parrokiak (igande eta jaiegunetan) antolatzen dituzte. Prezioa 2 eta 3 euro artekoa da, 12 urtetik beherakoak kenduta, eta informazioa Turismoko web-orri ofizialean eskura daiteke.

Obrek iraun duten bitartean ezin izan da klaustroa sartu, baina behin haiek amaituta Kultura Zuzendaritza Nagusiak, Udalak eta titularrak monumentura sartzeko baldintzak finkatuko dituzte, sarbidea errazagoa izan dadin bermatzeko. Ondarean finantzaketa publikoarekin egin diren gainerako jarduketekin eten den bezala, ezarritako irizpidea eta herritarrek sarbidea izatea esku hartu deneko espazioetan. Horretarako, kultur intereseko ondasunetarako sarbide izanen da Nafarroako Gobernu-Eliza Katolikoa Batzordean aztertuko diren gaietako bat, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuraren 2016ko ekainaren biko ebazpenean xedatuari jarraituz. Horri dagokionez, Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilaren ekainaren 27ko 54/2016 Foru Aginduaren bitartez, batzorde horretan Gobernuak izanen dituen ordezkariak izendatu dira, eta Artzapezpikutzari eskatu zaio bereak izenda ditzan. Aurreikusita dago bilera abuztuaren amaieran egin dadin.

Hori jakinarazi ahal dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2016ko uztailaren 18an

Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilaria

Galdera, Karlismoaren Museoaren edukiari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Karlismoaren Museoaren edukiari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko ekainaren 17ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko uztailaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du "Karlismoaren Museoaren edukiari" buruz (9-16/PES-00264). Hona Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariaren erantzuna:

Egin dituen galderak direla eta, guztiak ere Karlismoaren Museoaren edukiei buruzkoak, Araiz jaunari informazioa ematen zaio Museoko erakusketak iraunkorraren gidoia egiteko jarraitutako prozesuari buruz, Museoen Zerbitzuaren Zuzendaritzak eta Karlismoaren Museoko teknikari arduradunak igorri didan informazioaren arabera:

1997ko apirilaren 24an, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuraren saio batean, ebazpen bat onetsi zen, zeinak Nafarroako Gobernuak premia-tzen baitzuen Karlismoarekin lotutako balio historikoko materiala berreskuratzeke, museo nahiz toki egoki batean kontserbatzeko, eta, aldi berean, gaiari buruzko ikaskuntzen zentro bat sustatzeko.

1999ko abenduaren 20ko Erabakiaren bidez, Nafarroako Gobernuak Karlismoaren Museoa sortzea erabaki zuen, bai eta haren titularitatea bere gain hartzea eta hura Lizarrako Gobernariaren Jauregian ezartzea.

Hezkuntza eta Kulturako kontseilariaren martxoaren 17ko 96/2000 Foru Aginduaren bitartez, Alderdi Karlistarekiko lankidetzak akordioa baimendu zen, sortu berria zen Karlismoaren Museo Historikoko piezen lagapenerako. Funtsean, 87 pieza historiko dauzka; funtsean, banderak eta uniformeak dira.

Hezkuntza eta Kulturako kontseilariaren abuztuaren 27ko 324/2001 Foru Aginduaren bitartez, "Karlismoaren Museorako orientabideen gidoia" Stanley Payne jaunak idatzia, onetsi zen. Stanley

Payne Historian doktorea da Kolunbiako Unibertsitatean eta Wisconsin-Madisongo Unibertsitateko historia irakasle emeritua da. 1987tik Espainiako Historiako Errege Akademiako kidea da. Espainiako Gerra Zibilaren eta karlismoaren arloetan aditua da, eta 1995ean Historia del Carlismo (Madril, Compañía Tradicionalista Carlista) liburua argitaratu zuen.

Aipatutako agirian, Karlismoaren Museorako orientabideen gidoia izenburukoan, S. G. Paynek proposatu zuen museoa kronologikoki antolatzea, honako atal haue ardatz hartuta:

I. Antzinako Erregimena Espainian eta Nafarroan

II. Liberalismoaren desafioa eta tradizioaren defentsak (1812-1833)

III. Karlismoaren osaketa eta Lehen Karlistaldia

IV. Karlismoaren bilakaera eta Bigarren Karlistaldia (1846-1849)

V. Hirugarren Karlistaldia (1872-1876)

VI. Karlismoaren bilaketa eta aldaketa historikoa (1877-1936)

VII. Karlismoa eta Gerra Zibila (1936-1939)

Eta VIII. atal gisa, honakoa gehitzen zuen:

"Museoko erakusketak 1939an amaitu behar du, aurreikusitako bezala. Baina, agian, guztiaren amaieran, koadro bako bat jar liteke, zeinak oso laburki azaltzen baitu karlismoak frankismoaren pean izan zuen bilakaera, karlismoak aldaketa egiturazkoen eta kulturalen ondorioz izan zuen beherakada, eta Francoren ondoko aldaketa eta banaketa."

Abenduaren 14ko 422/2006 Foru Aginduaren bidez, Karlismoaren Museoko Komite Zientifikoa eratu zen, honako hauek osatua: Juan Ramón Corpas Mauleón, Vianako Printzea Erakundeak Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria, lehendakari gisa; Camino Paredes Giraldo, Kulturako zuzendari nagusia, lehendakariorde gisa; eta honako kide hauek Juan Pablo Fusi (Madrilgo Unibertsitate Complutenseko Historia Garaikideko katedraduna), Ángel García Sanz (Nafarroako Unibertsitate Publikoko Historia Garaikideko katedraduna), Jordi Canal (maître de Conférences de l'École des Hautes Études de Sciences Sociales, Paris) eta José Ramón Urquijo (Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Nagusiko ikerketako irakaslea).

Eratze-bilkura 2006ko abenduaren 15ean egin zen, Iruñean, eta lehenengo lan-bilera, berriz, 2007ko urtarrilaren 19an, orduan ere Iruñean.

Komite Zientifiko horrek 2010.era arteko indarra zuen, eta haren berariazko eginkizunen artean zegoen “proiektuaren eduki zientifikoari buruzko aholkua ematea, bereziki museoaren erakusketa iraunkorrari dagokionez.” 2010ean, komitea berritu zen, eta bi kide berri sartu ziren: Javier Donézar Díez de Ulzurrun, UAMeko Historia Garaikideko katedraduna, eta Francisco Javier Caspistegui, Nafarroako Unibertsitatekoa. Komite horrek 2014ra arte izan du indarra.

2007an, Museo Zerbitzuak Karlismoaren Museoaren Plan Museologikoa (2007) egitea enkargatu zuen, zeinetan aipatzen baita “Karlismoaren Museoaren egitekoa Nafarroako eta Espainiako Karlismoaren historia da, XIX. eta XX. mendeetako historiaren testuinguruan, ulertuta hura prozesu kontrairaultzaile bat dela, Europan eta munduan dauden beste batzuekin konparagarria, bildumen kontserbazioaren, erakusketaren eta ikerketaren bitartez.” Helburu hori lortzeko, Plan Museologikoa hainbat helburu eta estrategia aipatu ditu, bildumenari, ikerketari, interpretazioari, programa publikoei, eragin ekonomikoari eta zentroaren kudeaketari buruz.

Erakusketa iraunkorrari dagokionez, Plan Museologikoa honakoak aipatzen ditu Museoak transmititu beharreko mezuen artean:

- Nafarroako historia azaltzea, hari nagusi gisa erabiliz, hen batean, mugimendu karlistaren historia. Horrek berarekin dakar kronologia XIX. eta XX. mendeetara mugatzea.

- Ikuspegi zorrotz, ireki eta inpartziala ematea, jarrera ideologikoetatik urrun.

- Ikerketak Karlismoa bezalako prozesu bati buruzko azterlanean daukan garrantzia transmititzea.

- Historiari buruzko hezkuntza sustatzea, alderdi eta ikuspegi guztietatik, gogoeta kritiko bat sortuz eta egungo mundua aztertzeke tresnak emanez.

- Karlismoaren ikuspegi bat ematea, hura prozesu kontrairaultzaile baten moduan aurkeztuz, Europan eta munduan XIX. eta XX. mendeetan gertatu ziren beste batzuekin konparagarria.

- Museo bizi baten modura aurkeztea, halako moduz non haren diskurtsoak sortzen dituen ekarpenak, erabiltzane dituen erreferentziak eta transmititzen dituen baloreak balagarriak izango

baitira bisitarien eta erabiltzaileen jakintzarako, ikasketarako eta gogoetarako.

Berariaz, honako hau dio Plan Museologikoa: “Karlismoaren Museoa, beste ezer baino lehen, izaera historikoko museo bat da; hau da, historiako zenbait unetan gertatutako egitateak azalduko ditu. Berezitasuna –zeinak kontu edo arreta berezia eskatzen baitu ikuspegi dela eta– da Karlismoa gaur egun oraindik ere indarrean dagoen jokabide ideologiko eta politiko jakin baten mugimendu bat izan dela, eta, horrenbestez, ez dagoela behar adina distantzia historikorik edo heldutasun kritikorik balio-judizio behin betikorik emateko. Hartara, Foru Gobernuak egitate historikoak azaltzeko eta maila ideologikoko iritzirik ez emateko duen borondatearekin jarraituz, ezinbestekoa da diskurtso zorrotz eta objektiboa bermatzea”

Gogoeta hori abiapuntutzat hartuta, Plan Museologikoa proposatzen du Karlismoa bezain konplexua den gai bat aurkezteko zailtasuna bera izatea Museoaren diskurtsorako gogoeta-tresna edo ikuspegi. Hartara, estrategia museografikoa izanen da egitate historikoak modu objektiboan azaltzea, gero gogoeta sortzen duten ikuspegi edo galderak elkarren aurrez aurre jartzeko.” Horrekin, ikerketa historikoaren metodologia zeharkako gai bihurtzen da gidoi museografikoan bertan, eta bilatzen du “bisitariak parte har dezala historialarien bide desberdinetan, teorietan eta egitate historikoen interpretazioa dela-eta dauzkaten jarreretan, horrek gaitasun kritikoa areagotu eta haien esperientzia aberasten baitu.”

Hartara, Plan Museologikoa Karlismoaren Museoaren erakusketa iraunkorrerako oinarriko gidoia proposatzen du, Komite Zientifikoak berriki beharrekoa, honako esparru hauen bitartez:

- I. Sarrera: Espainia XIX. mendearen hasieran.

- II. Ideologia kontrairaultzaile bat. Karlismoaren osatzea.

- III. 1. Karlistaldia (1833-1840).

- IV. Gatazkak eta krisiak XIX. mendearen erdialdean.

- V. Lehen Errepublika eta 3. Karlistaldia (1872-1876)

- VI. Karlismoaren bizitza politikoaren finkatzea (1876-1931)

- VII. Bigarren Errepublika eta Gerra Zibila (1931-1939)

Komite Zientifiko 2007. erdialdetik aurrera arituz lanean Karlismoaren Museorako gidoia

prestatzen, jarraibide horien arabera. Azkenean, erakusketa iraunkorrerako proiektu monografikoa garatzeko landutako edukiak honako esparru hauetakoak izan ziren:

1. esparrua. Karlismoa mugimendu historiko gisa

– 1.1. Iraultza eta kontrairaultza (XVIII: mendearen amaieran eta XIX. mendearen hasiera)

– 1.2. Kontrairaultzaren teorikoak

– 1.3. Mugimendu kontrairaultzaileak (XIX. eta XX. mendeak)

– 1.4. Karlismoa, historia luze bat

– 1.5. Nafarroa eta Karlismoa

2. esparrua. Antzinako Erregimenaren krisia eta Karlismoaren osatzea

– 2.1. Espainia 1808an

– 2.2. Kadizko Gorteak eta frantsesaren aurkako gerra: erreformen aurkako jarrera

– 2.3. Europako oreka:

– 2.3.1. Vienako Biltzarra

– 2.3.2. Aliantza Santua

– 2.4. Espainia 1814-1833 urteetan

– 2.5. Oposizio armatua Espainian:

– 2.5.1. Hirurtekoko gerrilla

– 2.5.2. Laidotuak

– 2.6. Ondorengotzaren kontua: lege salikoa, nazioarteko presioak eta abar

3. esparrua. Lehen Karlistaldia

– 3.1. Gatazkaren hasiera: matxinadaren sorrera-guneak aztertzea.

– 3.2. Gerrari buruzko mitoak:

– 3.2.1. Zumalakarregi

– 3.2.2. Cabrera

– 3.2.3. Gatazka garrantzitsuak

– 3.3. Estatua eta gizarte karlistak:

– 3.3.1. Aldundien zeregina

– 3.3.2. Ministerioak

– 3.3.3. Armadaren osaera

– 3.3.4. Karlismoaren oinarri sozialak

– 3.4. Nazioarteko testuingurua

– 3.5. Gatazkan aritu zen armada: gerrillatik espedizioetara

– 3.6. Bakearen bideak

4. esparrua. Gerren arteko aldia

– 4.1. Erbestea eta amnistiak (on Karlosen abdikazioa)

– 4.2. La guerra dels Matiners (bidelapurren hizkera)

– 4.3. San Carlos de la Rápita

– 4.4. Mugimenduan izandako zatiketak eta birlantze ideologikoak. Italiaren batasuna.

– 4.5. 1868ko iraultza

5. esparrua. Bigarren Karlistaldia

– 5.1. Karlos VII.a eta Veveyko Batzarra

– 5.2. Matxinadaren hasiera: Orokietatik Amorebietako itunera

– 5.3. Gatazkaren berrabiatzea

– 5.4. Estatu karlista

– 5.5. Nazioarteko testuingurua

– 5.6. Mitoak: Santa Kruz apaiza, Jurramendiko gudua eta abar

– 5.7. Gerraren amaiera: foruen abolizioa

6. esparrua. Karlismoa mendeen arteko garaian (1876-1931)

– 6.1. Gerra ondoko krisia

– 6.2. Karlismoa eta integrismoa

– 6.3. Mende-amaierako politikaren modernizazioa: zirkuluak

– 6.4. Erreketea

– 6.5. Jaimismoa eta mellismoa

– 6.6. Karlismoa eta nazionalismoak

7. esparrua. Bigarren Errepublika eta Espainiako Gerra Zibila

– 7.1. Komunio Tradizionalistaren indartzea

– 7.2. Margaritak, pelaioak eta erreketek

– 7.3. Fal Conde eta karlismo militarra

– 7.4. Konspirazioak eta gerra

– 7.5. Baterakuntza

– 7.6. Erreketeak gatazkan

– 7.7. 1939: garaipenak eta porrotak

Testuak idaztearen ardura Zaragozako Unibertsitateko Historia Garaikideko Departamentuko Pedro Rújula López jaunarena izan zen. Karlismoaren Museoa 2010eko martxoaren 23an zabaldu zen.

Museoak Karlismoaren historia berriari buruz egindako jarduerak eta erakusketak

Ordutik eta erakusketa iraunkorraz gainera, Karlismoaren Museoak Karlismoaren historiari buruzko kultur jardueren programa bat garatu izan du, zeinetan Plan Museologikoan adierazitakoari erreparatuta, ikuspegi historikoa eta soziala uzartu baitira. Programa horretan bildu dira Museoan erakusteko edo bertatik Karlismoaren historia hurbilari buruzko alderdi batzuk, 1939tik aurrerakoak, ezagutzera emateko ekimenak bildu dira.

Hartara, 2007tik 2010era lau aldiz egin ziren Karlismoaren Ikerketarako Jardunaldien esparruan, karlismoarekin eta haren historiarekin eta ideologiarekin lotutako zenbait alderdi landu ziren, kasuko aktetan jaso zirenak. Honako ekarpen hauek aipatu behar dira, erakusketa iraunkorren muga kronologikoak gainditzen dituztenak:

– Fernando Molina, “De la historia a la memoria. El carlismo y el problema vasco” El carlismo en su tiempo: Geografías de la contrarrevolución. Karlismoaren Ikerketarako I. Jardunaldiak.

– Francisco Javier Caspistegui, “¿Carlismo en Navarra o Navarra carlista?: paradojas de una identidad conflictiva entre los siglos XIX y XX” El carlismo en su tiempo: Geografías de la contrarrevolución. Karlismoaren Ikerketarako I. Jardunaldiak.

– Jeremy MacClancy, “An anthropological approach to carlist ritual: Montejurra during francoism”. Violencias fratricidas: carlistas y liberales en el siglo XIX. Karlismoaren Ikerketarako II. Jardunaldiak.

– Antonio Manuel Moral Roncal, “La imagen del carlismo en el cine español”. Imágenes. El carlismo en las artes. Karlismoaren Ikerketarako III. Jardunaldiak.

– Manuel Martorell, “La continuidad ideológica del carlismo tras la Guerra Civil”. “Por Dios, por la Patria y el Rey”: las ideas del carlismo. Karlismoaren Ikerketarako IV. Jardunaldiak.

Bestalde, Karlismoaren Museoak iraupen luze-ko aldi baterako erakusketak antolatu ditu. Horieta-ko baten batean karlismoa zentzu kronologiko zabalean landu da, erakusketa iraunkorrek Gerra Zibilaren amaieran markatutako muga gaindituta. Horrela gertatu da, esate baterako, Karlismoaren Museoko lantaldea komisario izan duen Historiarekin konprometituak. Karlismoaren Museoaren dohaintzak eta gordailuak (2014ko apirilaren 15etik 2015eko otsailaren 15era) izeneko aldi baterako erakusketarekin, zeinean ikusi ahal izan baitziren erakunde partikularrek Karlismoaren Museoari

dohaintzan edo gordailuan emandako objektuak. Horien artean, zenbait esparru nabarmendu behar dira; esate baterako Federación Obrera Socialista sindikatu karlistak frankismoaren garaian egindako borroka. 1972tik 1976ra jardun zuen sindikatuak.

Hain zuzen ere, erakusketa honetan berriazko toki bat eskaini zataion Alderdi Karlistak 2000an emandako gordailuari, zeinak ikus-entzunezko baten laguntza ere izan baitzuen, Alderdi Karlistako idazkari federal Jesús María Aragonen parte-hartzearekin.

“Alderdi Karlistak gordetako ondareak nolabaitteko arriskua zuen gutxietsia izateko edo are galtzeko ere. Hori dela eta, jotzen dugu ondare hori osatzen duten objektuen integritatea segurtatuta egonen litzatekeela Nafarroako Gobernuaren eskuetan. Jo genuen ezen, integritate hori bermatuta, gizarteak hobeki ulertu ahalko lukeela XIX. mendean zer gertatu zen, orduan karlismoak egiteko garrantzitsua izan baitzuen (...) Ondare hau esku honetan dago, kontserbatua eta nafar guztiek hartaz baliatzeko moduan, historia eta kultura hobeki ezagut daitezten. Kontua ez da helburu estetiko soilezko baliatzea, baizik eta baliatze kultural eta intelektuala ere”

Karlismoaren Museoaren beste jarduketa-ildo bat Karlismoari buruzko ikerketarako laguntza izan da, 2012an eta 2015ean deitutakoa. Haren lehenengo edizioan Mercedes Peñalba Sotorriori eman zitzaion Entre la boina roja y la camisa azul. La integración del carlismo en Falange Española Tradicional y de las Jons (1936-1942) lanarengatik (Nafarroako Gobernuak argitaratu zuen 2013an), zeinean sakontzen baitu karlismoa FET y de las JONS-en integratzeko prozesu gatazkatsuari buruz, argia emanez karlismoa estatuko entitate faszistizatu hark xurgatzeko moduari buruz.

Karlismoaren Museoak bere espazioa eskaini zuen Tomás Zumalakarregiri buruzko aldi baterako erakusketa antolatzeke, haren jaiotzaren 225. urteurrenean. 2013ko abendutik 2014ko otsailera egin zen erakusketa hura. Halaber, 2014ko otsailaren 14an, Zumalakarregi jeneralaren figurari buruzko mahai-inguru bat egin zen Alderdi Karlistako kideekin.

Gainera, Museoan gai karlisten inguruko liburu eta ikerlanen aurkezpenak egin ohi dira; besteak beste, Manuel Martorellek argitaratutako Carlos Hugo frente a Juan Carlos. La solución federal para España que Franco rechazó (Ediciones Eunote, 2014), zeina 2014ko abenduaren 23an egin baitzen.

Garai berria

Nafarroako Gobernuak museoaren edukiaren balizko aldaketa bat aurreikusi izanari buruz, esan dezaket Kultura Zuzendaritza Nagusia aztertzen ari dela komite zientifikoa berritzea, hain zuzen ere komite zientifiko sendo eta anitz bat eratze aldera. Komite zientifiko berriaren zereginetako bat izanen da Karlismoaren Museoaren gaia berrikustea eta aztertzea erakusketa iraunkorren ikuspegi zabalago bat planteatzeko aukerarik baden.

Gainera, Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuak badaki zeinen beharrezkoa den Foru Komunitatearen historia hurbilaren ezagutza sustatzea eta zeinen garrantzitsuak diren, halaber, indarkeria politikoaren biktimen memoria eta erreparazio historikoa. Hori dela eta, Kultura Zuzendaritza Nagusiaren borondatea da programazio-bide hori sakontzea eta zabaltzea, halako

moduz non Karlismoaren Museoak maiztasun handiagoz edukiko baititu mugimendu karlistaren historiako garai hurbilenetan sakontzen duten erakusketak eta azterlanak.

Museoen Zerbitzua, halaber, Museoaren lantaldearekin batera aztertzen ari da Jurrumendiri buruzko aldi baterako erakusketa bat programatzea, XIX. mendetik gaur arte Karlismoaren espazio fisiko eta sinbolikoa izan baita. Jarduera hori datorren ikasturtearen amaierarako zabaldu ahal da.

Hori jakinarazi ahal dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean 2016ko uztailaren 19an

Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilaria, Ana Herrera Isasi

Galdera, Ribaforadako kontsultategi mediko berriaren eraikuntza geldiarazteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Ribaforadako kontsultategi mediko berriaren eraikuntza geldiarazteari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko ekainaren 17ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko uztailaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-16/PES-00265), non informazioa eskatzen baitu jakin nahi baitu "Ribaforadako kontsultategi mediko berriaren eraikuntza geldiarazi izanari buruz, 2016ko zenbait kontusailetan 23 milioi blokeatuko direla iragarri ondoren". Hauxe da Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horren gainean informatu beharrekoa:

– Zergatik geldiarazi da Ribaforadako kontsultategi mediko berriaren eraikuntza, eta ez beste jarduketak batzuk?

Ribaforadako kontsultategi mediko berriaren eraikuntza ez da geldiarazi; atzerapen bat gertatu da espedientearen izapidetzean, hasiera batean aurreikusitako plan funtzionala birplanteatzearen ondorioz. Horrenbestez, proiektuaren idazketa eta obraren hasiera atzeratu egin dira; beraz, ezin ziren erabili aurtengo kontusaileko 300.000 euroak.

– Nafarroako Gobernuak zer aurreikusten du kontsultategi publiko horretan jarduteari begira?

Kontsultategi honi buruzko aurreko aurreikuspenei eusten diegu; hau da, kontsultategi berria erakiko da. 200.000 euroren blokeoak daukan eragin bakarra da hasieran baino aurrekontu gehiago konprometitzen duela 2017rako. Behin kontsultategiaren plan funtzionala definituta, obraren gutxi gorabeherako aurrekontua 800.000 eurokoa dela jo da. 2016ko aurrekontuan 300.000 euro jaso ziren; hori dela eta, bai Udalak obra egitea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren diru-laguntza bezala, bi urtetarako planifikatu behar da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko uztailaren 12an.

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez
Cunchillos
